

Nire ahotsa, zure ahotsa, nire ahotsa



Bizi-esperientzia batetik abiatuko gara, non gure ahotsa erdigunean egongo den. Ondoren, ikerketa- eta sormen-prozesu bat sortuko dugu, non beste ahots batzuek gure oroitzapenak mugitzen eta hortik birpentsatzen lagunduko diguten.

Helburuak

- Zarys Falconen obrara eta lan-prozesuetara hurbiltzea.
- Gure ahotsen balio poetikoa eta emozionalki hezteko daukaten indarra ikertzea eta hausnartzea.
- Ahozko transmisioaren balioa nabarmentzea, identitate-erakuntzako eguneroko jardura gisa.
- Gauzak etengabe zalantzan jartzea sorkuntza-tresna gisa ulertzea.
- Gure gorputzak sortzen dituen soinuekin eta beste batzuek sortutako soinu-materialarekin esperimintatzea.

Aipamenak

Webzinea, Zarysek sortutako testu, bideo eta audioen erreferentziak:

<https://pressplaymusic.es/webzine/grietas-sonoras/intro/>

R.Murray Schafer:

https://mediosyhumanidades.files.wordpress.com/2021/08/fdocuments.ec_hacia-una-educacion-sonora-r-murray-schafer.pdf

Soinu edizioa:

<https://myedit.online/es/audio-editor/>

<https://www.bandlab.com/>

Proposamenaren garapena

Aurkezpena

1. Visionar:

- Zarysen emanaldia Katanga Dub-ekin: www.youtube.com/watch?v=l8ywZqfZcbs
- Kantatzen duten memoriak: <https://vimeo.com/user145105318>
- Disonancias Comunes proiektua: <https://vimeo.com/user145105318>

2. Zer dute komunean proiektu horiek? Hiru ideia pentsatuko ditugu, eta haiek partekatuko.

3. Gure ahotsa protagonista izan duen bizi-esperientzia bat gogoratuko dugu (susto baten ondorioz kontrolik gabe egindako garrasi bat, behar ez denean ateratzen den barre algara bat, komeni ez den une batean ahapetik kantatutako abesti bat, norbaiti deitzeko oihu bat...) Zein izan zen gure ahotsaren rola momentu horretan? Nola sentitu ginen horren aurretik, bitartean eta ondoren?

4. Binaka, esperientzia deskribatuko dugu:

- Belarrira xuxurlatuz
- Eskutik helduta ibili bitartean
- Baten eskua bestearen paparrean edo eztarrian jarrita

5. Taldean, nola sentitu garen eta ariketarekin zer sortu den aipatuko dugu.

Esperimentazioa / Sorkuntza / Ikerketa

1. Binaka, hurbileko bi edo lau pertsonaren testigantzak bilduko ditugu soinu-grabaketa batean. Ezin dira adin berekoak izan, eta, ahal bada, gutxienez 20 urteko aldea egongo da haien artean. Hiru galdera hauek egingo dizkiegu guztiei:

- Pentsatu zure ahotsa protagonista izan den bizi-esperientzia batean. Konta iezadazu.
- Gogoratzen duzu nire adina zeneukanean abesten zenuen eta abesten zizuten abestiren bat? Kanta iezazkidazu.
- Gogoan duzu nire adina zeneukanean askotan esaten zizuten esaldiren bat? Eta garai hartan esan ohi zenuen edo norbaitek esan ohi zuen esaldi bat? Esan iezazkidazu.

2. Ikerketan bildutako soinu-materialarekin 2-3 minutuko soinu-konposizio bat osatuko dugu. Aukerak:

- Hitzekin, erritmoarekin, abiadurarekin, bolumenarekin... jolastu.

- Elkarrizketatutako pertsona bakarraren testigantza erabili edo bat baino gehiago nahastu.
- Grabazioak erabili edo erreproduzitu, iradokitzaileenak edo harrigarrienak iruditu zaizkigun elementuetan arreta jarritz.

- Gure esperientzia pertsonalak berreskuratu eta konposizioan nolabait txertatu.

- Gure ahotsak eta gorputzarekin sortutako beste soinu batzuk sartu.

3. Bi bikote elkartzeko ditugu, lana elkarri erakutsi eta azaltzeko. Non izan dugu arazo gehien, zer gustatu zaigu gehien eta zergatik. Zer sentsazioekin geratuko gara? Zer ikasi dugu?

4. Lau pertsonako talde horrek gorputz-ekintza bat pentsatuko du, eta egindako soinu-konposizio bakarra edo biak erabili beharko ditu. Horretarako, mugimenduak eta denborak adierazten dituen mapa-partitura bat sortuko dugu. Hainbat aldiz praktikatuko ditugu partitura sortzen dugun bitartean.

Ondorioak eta lerro irekiak

1. Elkarrizketa gidatuari denbora tarte bat eskainiko diogu, galdera hauetatik abiatuta hausnartzeko:

- Gure esperientziak islatuta ikusten ditugu sortu dugun gorputz-ekintzan? Eta soinu-piezan? Haietan presente gaudela sentitzen dugu? Nola?
- Sormen-prozesuan bizitako esperientziak baldintzatu al du gure begirada besteek kontatu dituzten esperientziak? Edo baliteke hura baldintzatu izana? Eta gure esperientziak?
- Elkarrizketatuak irudikatuta sentituko al dira gure lanak ikustean/entzutean? Zergatik?
- Taldeari galderarik egin nahi diogu?

2. Ekintzak aurkezteko jardunaldi bat antolatuko dugu. Tokia pentsatuko dugu, beharrezko baimenak lortuko, eta nahi dugun publizitatea egingo.

3. Elkarrizketatuak gonbida ditzakegu (edo prozesuan parte hartzeagatik eskerrak eman, besterik gabe). Horretarako, gonbidapen (edo esker-mezu) pertsonalizatuak prestatuko ditugu:

- Bideogonbidapena
- Audiogonbidapena